

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### OGASUN ZUZENDARITZA

Dirubilketa Zerbitzua

#### Zuzeneko kudeaketa eta adjudikazio bidezko salmentaren iragarkia

2011EXP48001451 premiamendu prozeduran zordunari enbargatutako ondasun higiezin enkante publikoa adjudikatu gabe geratu da bere lehenengo lizitazioetan. Enkante horren iragarkia 2024ko ekainaren 28ko 72 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen, eta Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketaren Arautegi Orokorraren 180. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, urriaren 9ko 4870/2024 Ebazpenaren bidez baimena eman da ondasun higiezin jabari osoaren herena zuzeneko kudeaketa adjudikazio bidez saltzeko. Hauek dira ondasun higiezinak:

Bat zenbakiko sorta.

Hiri ondasuna Izarra herrian hogeita bederatzi zenbakia. 1 zenbakiko aparkaleku plaza, Izarrako (Urkabustaiz) Beluntzabidea kaleko 59. zenbakiko eraikinaren sotoko solairuan. Azalera erabilgarria: 12,00 metro karratu. Mugak: aurrealdean, errodadura eremua; sakonean, sotoko solairuaren itxitura perimetrala; eskuinean, sartuta, sotoko solairuaren itxitura perimetrala; eta ezker aldean, sartuta, 2 zenbakiko aparkalekua. Garajearen katastroko erreferentzia: 54 3 806 1 15. Kuota: Guztizko higiezin multzo osoan ehuneko 0,23ko partaidetza kuota dagokio, eta kokatuta dagoen eraikinean, berriz, ehuneko 0,46koa. 4945 finkaren 55 liburua, 178 folioa jabetza horizontalaren elementua da.

Amurrioko Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, Urkabustaizko 1185 liburuakian, 56 liburuan, 97 folioan, 4978 erregistro finkan. Idufir: 01001000789048.

Finkak lehendik dituen kargak:

Ez dago espediente honetatik sortutako eta foru aldundiak egindako enbargo idaztoharra baino lehengoko karga ekonomikorik.

Enkantean gutxieneko tasatzak balioko duen balorazioa: 6.000,00 euro.

Bi zenbakiko sorta.

Hiri ondasuna Izarra herrian berrogeita lau zenbakia. 12 zenbakiko aparkaleku plaza, errektangularra, Izarrako (Urkabustaiz) Beluntzabidea kaleko 61. zenbakiko eraikinaren sotoko solairuan. Azalera erabilgarria: 21,96 metro karratu. Mugak: aurrealdean, errodadura eremua; sakonean, sotoko solairuaren itxitura perimetrala; eskuinean, sartuta, 13 zenbakiko aparkalekua; eta ezker aldean, sartuta, 11 zenbakiko aparkalekua. Garajearen katastroko erreferentzia: 54 3 806 2 26. Kuota: Guztizko higiezin multzo osoan ehuneko 0,23ko partaidetza kuota dagokio, eta kokatuta dagoen eraikinean, berriz, ehuneko 0,46koa. 4945 finkaren (55 liburua, 178 folioa) jabetza horizontalaren elementua da.

Amurrioko Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, Urkabustaizko 1185 liburukian, 56 liburuan, 157 folioan, 4993 erregistro finkan. Idufir: 01001000789192.

Finkak lehendik dituen karga:

Ez dago espediente honetatik sortutako eta foru aldundiak egindako enbargo idaztoharra baino lehengoko karga ekonomikorik.

Enkantean gutxienerako tasatzak balioko duen balorazioa: 6.000,00 euro.

Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketarako Araudi Orokorraren 180.5.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, zuzeneko adjudikazioaren gutxienerako prezioa lehenengo lizitazioko enkante-tasa izango da, enkante publikoan lizitazio bakarra egin delako, hau da, 6.000,00 euro lote bakoitzerako.

Interesdunek sinatutako eskaintza gutun azal itxian aurkeztu beharko dute Derrigorrezko Dirubilketako Bulegoan (Probintzia plaza 13, behea, Gasteiz). Gutun azal horrekin batera, beste gutun azal bat aurkeztu beharko da, honako agiri hauekin:

a) Lizitazioaren nortasun agiri nazionala eta, hala badagokio, duen ordezkari-tza justifikatzen duen eskritura publikoa edo agiria.

Dokumentu horien ordezkari, kopia konpultsatuta edo erkatuta aurkeztu ahal dira.

b) Arabako Foru Aldundiaren aldeko txeki adostua, edo fidantzaren zenbatekoa duen esku-dirua, zeinak lehen lizitazioan eskatutakoaren berdina izan beharko baitu, hau da, 1.200,00 euro.

Interesdunek egindako eskaintzak jasotzen dituzten gutun azalak ireki ondoren, interesdunek eskaintzari uko egiten badiote edo eskaintza erretiratu nahi badute, fidantzaren zenbatekoa galduko dute.

Eskaintzak aurkezteko epea iragarri hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik –edo hurrengo egun baliogabetatik– zenbatzen hasita hilabetea betetzen den eguneko 14:00etan amaituko da.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egun baliogabeteko goizeko 10:00etan irekiko dira eskaintza ekonomikoaren gutun azalak, Derrigorrezko Dirubilketako Bulegoaren lokaletan (Probintzia plaza 13, behea, Vitoria-Gasteiz). Eskaintzaileak lokal, egun eta ordu horretan egon ahal izango dira.

Dirubilketa Zerbitzuaren buruak irekiko ditu aurkeztutako eskaintzen gutun azalak, eta adjudikatzeko proposamen arrazoitua egin ahal zaio enkante mahaiari, haietakoren bat une horretan nahikotzat jotzen bada. Osterantzean, epea beste hilabete batez luzatuko dela iragarriko da, eskaintza berriak aurkezteko edo daudenak hobetzeko, une horretara arte aurkeztutako eskaintzen baliozkotasunari kalterik egin gabe, eta horrela hurrenez hurren, sei hilabeteko gutzizko mugarekin.

Agiri publikoa formalizatzeko gastuak, erregistro gastuak eta zuzeneko kudeaketa eta adjudikazioaren bidez egindako salmentaren ondoriozko zergak adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo bost egun baliogabetuen barruan ordaindu beharko du prezioa adjudikaziodunak. Hala egin ezean, adjudikazioa baliogabetu egingo da, eta adjudikaziodunak fidantzaren zenbatekoa galduko du. Gainera, sortutako kalte-galera guztiak ordaindu beharko dizkio administrazioari.

Eskaintzarik ez badago edo aurkeztutakoak nahikoa ez direla uste bada, adjudikatu gabeko ondasunak Arabako Foru Aldundiari adjudikatzeko izapideei ekingo zaie, Dirubilketarako Araudi Orokorraren 188. artikulua eta hurrengo arabera.

Interesdunek baldintzen berri izan ahal izango dute Derrigorrezko Dirubilketako Bulegoan (Probintzia plaza 13, behea, Vitoria-Gasteiz). Telefonoa: 945 26 57 40.

Hori guztia ALHAOn argitaratzeko agintzen dut, eta ohartarazten iragarki honek adierazten duela helbide ezezaguna duten zordunak jakinaren gainean geratzen direla, bai eta administrazio arloan interesa duten hirugarrenak ere.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 31

*Dirubilketa Zerbitzuaren burua*  
*JAVIER LÓPEZ DE CALLE OCHOA DE ERIBE*